

## 1. BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresak Lan&Lo izena du eta gehien irudikatzen gaituen slogana:  
“**DESKONEKTATU, DESKANTSATU ETA DISFRUTATU**”

Gure enpresa Donostian kokatuta egongo da, enpresa honek bizitzako bi ezinbesteko bizi baldintza ahalbidetzen ditu; **LAN eta LO**, izenak esaten duen bezala. Gure enpresak, deskantsatzeko eta denbora aprobetxatu ahal izateko zerbitzua eskainiko du. Enpresa honetan, etxean bezala sentituko zara; lo, jan eta lan egin dezakezu.



Gure enpresan bezero perfil ohikoenak ikasleak eta lana etxetik urrun egiten duten pertsonak izango dira, nagusiki. Adibidez; garraioa itxaroten, lanetik atera eta bazkaltzeko lekua bilatzen, lan egiteko leku egokia bilatzen, ez beharren bat gertatzea eta lo egiteko lekurik gabe gelditzea, edo ta, energi gehiago izateko siesta egin nahi izatea, ezinezkoa izaten diren arazoen horien aurrean aurkitzen diren pertsona guzti horiei dago bideratua gure enpresa.



Gure enpresak hotelak edo motelak izango ditu konpetentzia bezela baina guk gure enpresaren zerbitzua desberdinduko dugu, hau da, hotel batek edo motel batek gau edo egun batengatik kobratzen dizu gure enpresa merkeagoa izango da eta gainera zuk erabakiko duzu zenbat ordu, zenbat minutu eta zenbat segundu egongo zaren.

Garapen iraunkorreko helburuak ezinbestekoak dira enpresa batean, helburu hauek inguruneari, pertsoneri eta munuduari laguntzen diete. Gure betebeharra da gure enpresak helbururen bat betetzea.



Osasuna eta ongizatea helburuak betetzen ditugu: gure enpresan; deskantsatzeko eta erlaxatzeko leku bat ematen dugu, ondorioz, beraien ongizatea eta osasuna hobetuko dugu, izan ere, deskantsatzea oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu, egunerokoan aktibo egoteko.



Klimaren aldeko ekintzak ere beteko dugu, izan ere, guk erabiliko ditugun altzairiak; material natural eta birziklatuekin egiten dira, eta ez dute inolako toxikorik ezta inolako agente kutsatzailerik..

